

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak terrorismoaren biktimen oroimenezko kontzertua antolatu du

*Martxoaren 10ean izango da Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Europako Eguna dela-eta; sarrera librea izango da harik eta dena bete arte*

Asteartea, 2019.eko martxoak 5

Nafarroako Gobernuak, Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, igandean kontzertua antolatu du terrorismoaren biktimen oroimenez, martxoaren 11n Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Europako Eguna dela-eta. Sarrera doakoa da, baina aurretik jaso behar da.

Kontzertua Musikaren Hiriko Fernando Remacha Auditorioan izango da, Iruñean, 19:00etan. Gonbidapenak martxoaren 9ra arte jaso daitezke 18:00etatik 20:00etarako tartean, Musikaren Hirian bertan (Antonio Pérez Goyena pasealekua, Mendebaldea).

In Tempore Abesbatzak, Ekko Ensemble musika-taldearekin batera, Kim André Arnesenen “The Wound in the Water” obra eskainiko du (Zauria uretan). Emanaldian, abesbatza zuzentzen Carlos Etxeberria Alonso arituko da, eta Andrea Jiménez sopranoa ere bai bakarlari gisa.

Martxoaren 11n Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Europako Eguna egiten da aspalditik. Europak egutegian egun bat jarri nahi izan du terrorismoaren biktimei eta haien senitartekoei babesa eta elkertasuna eskaintzeko. Modu horretan, Nafarroako Gobernuak bat egin du oroitzapenarekin, indarkeria terrorista behin eta berriz salatuaz eta egungo gizarteari eta etorkizuneko belaunaldiei memorian oinarritutako errespetu eta bizikidetzaren mezu bat helaraziaz, ekintza terroristak bezalako gertaera krudelak berriro gerta ez daitezen.



Kontzertuaren kartela.

## **Kontzentrazioa martxoaren 11n**

Kontzertuaz gain, martxoaren 11n bertan, Nafarroako Gobernuak kontzentrazio instituzionala egingo du Nafarroako Jauregiko atearen aurrean, terrorismoaren biktimen alde minutu bateko isilunea egiteko, 2016az geroztik egiten den moduan.